



ELGOIBARREK *EMUGI!* MARTXAN JARRI DU, PERTSONA ETA SALGAIEN MUGIKORTASUN IRAUNKORRERAKO EKIMEN BERRIA



Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuaren Kontseiluak aurretiaz onetsi ondoren, joan den maiatzean baterako finantzaketa europarra eskuratzeko xedearekin aurkeztutako bost proiektu berrien inguruko informazioa helarazi zitzaion Euskal Herriko 2007-2013 EGEF Programa Eragilearen Jarraipen Batzordeari. Proiektu horien artean **emugi!** ekimena dago; udalerrian mugikortasun iraunkorra bultzatzeko ekimen berria da, eta pertsonak eta salgaiak garraiatzeko orduan, automobil eta motor elektrikoek alokairua eta erabilera partekatua ditu oinarri.

emugi! (*Elgoibarko mugikortasun iraunkorra, Movilidad sostenible de Elgoibar*) udalerriko pertsonen eta inguruaren onerako ingurumenarekiko errespetuzko ohiturak sustatzea xede duen *Elgoibar Berdea* udal-ekimenaren barruan kokatzen da.

Zer da **emugi!**?

emugi! ekimenaren xedea ibilgailua zentzuz erabil dadin sustatzea da, eta horrekin batera, Debabarrenako udalerria klima-aldaketaren aurkako borrokan, energiaren aurrezkiaren eta hirigintza erakargarri eta iraunkorrean erreferente bilakatzea du helburu. Lau jardueratara idolo ditu:

- herritarrentzako **ibilgailu elektrikoak alokatzeko zerbitzua, car sharing izenez ezaguna**, autoak, bizikletak edo motor elektrikoak barne hartuta; udalerriko enpresekin lankidetzara, euren langileek ibilgailu elektrikoak elkarrekin parteka ditzaten;
- "**azken milia**" izeneko **banaketa iraunkorreko** sistema martxan jartzea, furgoneta, motor edo/eta bizikleta elektrikoek bidez;
- lagundutako pedaleoa duen triziklo ibilgailu baten prototipoa diseinatu eta garatzea.
- Proiektuaren baitan etorkizunean garatu daitezkeen beste hainbat balizko zerbitzu aurreikusten dira, esaterako, **udalerritik kanpoko joan-etorrietarako autoak elkarrekin erabiltzeko sistema ezartzea**, garraio-gastuak partekatzeko **car-pooling zerbitzua** ezartzeko aukera, edo udalerrian hondakin solido ez-organikoak biltzeko ibilgailu elektrikoak erabiltzea.

XEDEA

Enpresei eta norbanakoei garraio-sistema iraunkorra eskaintzea, Elgoibarko herrigunea zeharkatzen duten ibilgailu astun eta kutsatzaileak murrizteko helburuarekin.

IKUSPEGIA

Salgaien garraio iraunkorrerako lehen esperientzia arrakastatsu bilakatzea Elgoibarko herrian, eta beste herri batzuetan ezar daitezkeen eredu bihurtzea; esperientziak kontzeptu honen bideragarritasuna agerian uztea eta kalitatezko lanpostuak sortzea, Elgoibarko herriari beste herrien artean bereizten lagunduko dion balioa emanez.

BALIOAK

Proiektu bizia eta malgua, herriguneko garraioak eragindako arazoei konponbide desberdinak, iraunkorrak, berritzaileak, eta batez ere, errealak aurkitzeko abiarazi da, eta aldi berean, pertsonen eta erakundearen ekimenari erabateko garrantzia ematea du xede.



Informazio oharra
2011ko Urria

Car-sharing, ibilgailu elektronikoaren alokairu zerbitzua

emugi! ekimenak automobil elektrikoaren bidezko alokairuzko garraio zerbitzua herritarren esku jarri du. Ibilgailu elektrikoak alokatzeko sistema honen antolakuntzak partekatzea du oinarri. Ibilgailuen artean, auto, bizikleta edo motor elektrikoak daude. Erabiltzaileek beharrezko arabera erreserba ditzakete, eta denbora laburrerako alokatu.

emugi! ibilgailu bat erreserbatu ahal izateko, erabiltzaileak alta eman behar du Udalean; informazio pertsonala eta kontu-zenbaki bat eskatuko zaizkio zerbitzuaren erabileraren kostuak bertan kargatzeko. Behin zerbitzuan alta eman ondoren, erabiltzailearen izena eta pasahitza emango zaizkio, eta zerbitzu honen inguruko web-orrian sartu beharko ditu. Berehala, ibilgailua jasotzeko data eta ordua eta entregatzeko data eta ordua hautatu ahal izango ditu.

Oraingoz **emugi!** ekimenak Mercedes Clase A markako bi auto eta hamar bizikleta elektriko erreserbatu eta alokatzeko aukera ematen du, eta horiek xede horretarako prestatutako aparkalekuetan gaez kargatu daitezke.



“Azken milia” banaketa iraunkorra

emugi! ekimenak bigarren zerbitzu bat ere eskaintzen du, furgoneta elektrikoaren eta lagundutako pedaleoa duten trizikloen bidezko paketeria eta mezularitza banaketa herrigunean. Proiektuaren atal honen helburua kanpoko banatzaile handien eta saltoki eta ostalaritza-establezimenduen arteko zein saltoki horietatik bezeroen etxeetara “bitartekari” lanak egitea da.

Zerbitzuaren antolaketa lana Elgoibar inguruko biltegi batean egiten da; bertan, salgaiak jaso eta antolatzen dira, ondoren ibilgailu iraunkorrak erabiltzaileei banatzeko. “Azken milia” iraunkorra esaten zaio horri.

Hala ere, “azken milia” banaketa iraunkorraren kontzeptuaren eta proiektu honen dimentsionamenduaren baitan, etorkizunari begira beste zerbitzu mota batzuk ere eskaintzeko asmoa dago, hala nola:

- **B2C banaketa:** herri barruan salgaiak banatzea da helburua, negozioetatik etxe eta familietara, eta horren bidez, bertako ekonomia eta inguruko baliabideak bultzatzea.
- **Kartoia eta beira gaika biltzea:** aurki saltokiei kartoia eta beira ibilgailu elektriko baten bidez jasotzeko zerbitzua eskainiko zaie. Zerbitzuaren xedea Elgoibarko herrigunean kartoia biltzeko erabiltzen diren errekuntzako ibilgailuen ondorioz gertatzen diren isurtzeak murriztea da.



Triziklo ibilgailu iraunkorraren prototipoa garatzea

Proiektua osatzeko, Elgoibarko Meka Institutua salgaiak garraiatzeko lagundutako pedaleoa duen trizikloaren prototipo berriaren diseinua eta fabrikazioa garatzen ari da, **emugi!** proiektuaren baitan. Garraibide berri hau **emugi!** ekimenaren azken milia banaketa iraunkorraren zerbitzuari txertatzea aurreikusten da, eta datorren urteko otsailean prest egotea espero da.





Informazio oharra
2011ko Urria

emugi! ekimenaren hedapena eta sozializazioa



Urriaren erdialdean, Mugikortasun Astearen ospakizunaren barruan, **emugi!** ekimenaren aurkezpen ofiziala egin zen Elgoibarko Leku Eder parkean. Elgoibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Energiaren Euskal Erakundeak, Debegesa eskualde-agentziak, Elgoibarko Meka LH Institutuak, Rezikleta kooperatibak eta Txita eta Ennera enpresek parte hartu zuten ekitaldian.



Alfredo Etxeberria alkateak proiektuaren lan-ildoak azpimarratu zituen bere hitzaldian, eta ildo bakoitzean orain arte egindako lanaren berri eman zuen. Alkateak udalerriko herritarrei zein enpresei onura sozial argia ekartzen dien ekimen gisa jo zuen **emugi!** ekimena, baina baita ekintzailetzari begirako aukera gisa ere. Aurkezpena amaitzeko, Debabarrenako, Gipuzkoako eta beste inguru geografiko batzuetako guneetan ezar daitekeen proiektua dela nabarmendu zuen.

Gainera, proiektua garatzearekin batera, hasieratik Elgoibarko Udalak webgune bat martxan jarri du **emugi!** ekimenari buruzko informazio guztiarekin, proiektua bera hedatu eta jakinarazteko tresna gisa. Webgune horren bidez, erabiltzaileak **emugi!** ekimenak eskaintzen dituen zerbitzu guztiei buruzko informazioa aurki dezake, hala nola, horien funtzionamendua eta erabiltzeko baldintzak eta arauak, proiektuaren jatorria, aparkalekuen kokapena, erakunde laguntzaileak eta **emugi!** ekimeneko ibilgailu elektrikoak on line erreserbatzeko aukera.

elgoibarko mugikortasun iraunkorra



Salgaien banaketa
Distribución de mercancías

Tel.: 943 74 73 71
emugi@emugi.net



Auto elektriko partekatua
Coche eléctrico compartido

Tel.: 680824100
emugisharing@gmail.com



Bizikleta elektriko partekatua
Bicicleta eléctrica compartida

The screenshot shows the emugi! website interface. It includes a header with the logo and navigation menu. The main content area has sections for 'Para coger una bici' and 'Para dejar una bici'. Below that, there's a 'Dónde' section with a map and a 'Reservar y reservar la web de ad' button. A 'Preguntas frecuentes' section is also visible at the bottom.



Informazio oharra
2011ko Urria

emugi! ekimenaren laguntzaileak eta aurrekontua

emugi! Elgoibarko Udalak bultzatutako ekimena da, eta udalerrian ohitura berri iraunkorragoak sustatzeko *Elgoibar Berdea* programaren barruan kokatzen da.

Proiektua garatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren, Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) eta Udalsarea 21-Jasangarritasunerako udalerrien euskal sarearen laguntza jaso du.

emugi! proiektuaren guztizko aurrekontua 700.000 euro da. Proiektuak bere baitan dituen ekimenak garatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Elgoibarko Udalaren artean sinatutako lankidetzeta-hitzarmenak 300.000 euroko inbertsioa aurreikusten du 2010-2012 aldirako. Kopuru horrek baterako finantzaketa europarra du, Euskal Herriko 2007-2013 EGEF Programa Eragilearen bidez (EHPE-EGEF).



Informazio gehiago

emugi! Elgoibarko mugikortasun iraunkorra

<http://www.emugi.net/>

Elgoibar Berdea (Elgoibarko Udaletxea)

<http://www.elgoibar.org/webb/pdf/elgoibarberdeag.pdf>

Hedabideek **emugi! ekimenaren inguruan argitaratutako zenbait berri:**

<http://www.elgoibaren.net/content/view/3198/1/>

http://www.elgoibaren.net/barren/barren_800_2011-10-21.pdf

<http://prentsa.elgoibar.org/2011-10-19.pdf>